


ESPOSIZIO ARRISKU TXIKIA DUTEN ENPRESEK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Enpresa bakoitzak **Kontingentzia Plan** bat izan beharko du, eta plan horretan jaso beharko ditu koronabirusari aurre egiteko prozedura eta jardueren kudeaketa, eta segurtasun bermeeekin lana egiteko beharrezkoak diren prebentzio neurriak.

Zeregin hori errazteko, ondorengo **jarraibide eta gomendioak eskaintzen** ditugu; horretarako osasun agintariekin, LSOINek eta Osalanek **esposizio arrisku txikiko** erakundeetarako formatutakoetan oinarritu gara (saltokiak, ile-apaindegia, fisioterapeutak, etab.).

KONTINGENTZIA PLANAK ALDERDI HAUEK IZAN BEHARKO DITU KONTUAN, BESTEAK BESTE:

- Jarraitu beharreko prozedura berriei buruzko **informazio garrantzitsua** emango zaie **langileei**, liburuxken, kartelen eta abarren bidez, gai hauen gainean: eskuetako higieena, maskarak eta NBE delakoak erabiltzea, bezeroekiko lankidetzatza, lantokia garbitzea, sarbidea, segurtasun tarteak, etxera itzultzea, arduradunari eman beharreko informazioa, sintomak agertuz gero egin beharrekoa, etab.
- Jarraibide berrien **informazio garrantzitsua** eman-go da gai hauei buruz: instalazioetako higieena, gelaren erabilera lankidetzatza, eskularruak, maskarak, sarbidearen kontrola, segurtasun tarteak, instalazioaren barruan egoteko gutxieneko denbora, etab.
- Langileei **osasun gomendioak** jakinaraziko zaizkie.
- **Beharrezko higieen produktuak bildu eta eskura izango dira**: xaboa eta lehertzeko papera, soluzio hidroalkoholikoa edota behin erabili eta botatzeko mukizapiak eta beharrezko **maskara, eskularru eta NBE** guztiak.
- **Egindako jardueren erregistroa eguneratuta izan beharko da**, baita horien datak eta zerikusia duten agiri guztiak ere.



LANTOKIAN SARTZEA ETA LANTOKITIK IRTETEA:

- Berriro ireki aurretik **lan bolumena zein izango den zenbatetsi beharko da**, logistika prestatu ahal izateko. Horretarako, kontuan hartu beharko dira: bezero kopurua, eskaini daitezkeen zerbitzuak eta eskaria artatzeko beharko den denbora. Langileen laneko ordutegiak eta bezeroekin izan beharreko hitzorduak planifikatuko dira. Irekita egongo den ordutegiaren zati bat sentiberatasun bereziko pertsonen eskainiko zaie.
- **Zereginak, sarrerak eta irteerak planifikatuko dira** une oro segurtasun tarteak bermatzeko eta pilaketak saihesteko. Horretarako behar diren neurriak sustatuko dira: **ordutegi malgua**, txandak egiteko plana, eta pixkanaka sartu eta irteteko ordutegia.
- Zentroaren sarrera eta irteeran **eskuak garbitzeko sistema edukiko da** (alkohol oinarria duen gel desinfektatzailea) eta bezeroei erabiltzeko eskatuko zaie.
- Ahal den neurrian, **maskarak eman** instalazioetara sartzen diren pertsonen, eta zehaztu nola erabili behar diren zereginetan. Maskarak **erabiltzea gomendatzen da**, ezin bada segurtasun-tarteak gorde. Bezeroek erabili behar badute eta jarduerak hala eskatzen badu, **eskatu maskarak erabiltzeko***. Balaratu erabili eta botatzeko eskularruen (latexekoak edo nitriloekoak) erabilera.

Kontingentzia plana Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan egingo da, eta segurtasun eta osasun batzordeari edo langileen ordezkariari kontsultatutako zaie, horrelakorik egonez gero, eta hauen adostasuna beharko da.



GARBIKETA ETA HIGIENEA:

- Arnas patologiak dituzten pertsonen sarbidea mugatuko da.
- Ahal den guztietan, lokaleko ateetako bat sartzeko eta bestea irteteko erabiliko da, eta **ateak eta torniketeak irekita egongo dira**.
- Lokalean sartuko den **pertsonen kopurua kontrolatuko** da (langileak eta bezeroak), itxaron geletan eta barneko aretoetan.
- **Kontratisten, hornitzaileen eta garraiolarien sarbidea mugatuko da**. Sartu beharra badute, beraiazko arauak ezarriko dira, eta ikusteko moduko toki batean jarriko dira. Aurrez definitu behar dira enpresako langileekin denbora eta kontaktua minimizatzeko jarduketak.

LANTOKIAN:

- **Lantokiaren barruko joan-etorriak** minimizatuko dira.
- Instalazio edo gune itxietako **edukiera mugatu** egingo da.
- Distantzia bermatzeko espazioaren banaketa eta antolaera, eta lan prozesuak aztertu behar dira. Banatzeko muga fisikoak jarriko dira: leihatilak, metakrilatozko manparak, etab.
- Segurtasun distantzia adieraziko da: ordaintzeko tokietan, bezeroak artatzeko tokietan etab. lurrean marka bat gunez edo beste seinaleztapen mota bat erabiliz.
- Bitarteko elektronikoen bidezko ordainketa sustatuko da (TPV garbitu egingo da erabili ondoren) edo dirutan kobratuz gero kontu handiagoa izan beharko da (eskuak maiz garbitu).
- Ahal dela telefono bidezko, onlineko... hitzorduak gehitu eta sustatuko dira. Norbait hitzordua eskatzera etorri gero, kanpoan dela emango zaio hitzordua.
- **Aldagelen eta komun** erabilera mugatuko da.
- Denek erabiltzen dituzten elementuen erabilera mugatuko da: **igogailuak**, ateetako **heldulekuak**, **makina banatzaileak**, eskaileretako **eskudelak**.
- **Elikagaien** manipulazioa eta kontsumoa ahal den guztia mugatuko da.

- **Instalazioak, tresnak eta postuak** gutxienez egunean bi aldiz **garbitu eta desinfektatuko dira**, lanaldia hasterakoan eta amaitutakoan.
- **Higiene produktuak eskura jarriko dira**: ura eta xaboia eta lehortzeko papera, soluzio hidroalkoholikoak edota erabili eta botatzeko mukizapiak.
- **Higiene pertsonaleko jarraibideak** emango dira bezeroekin tratatu aurretik eta ondoren.
- Elementuen **garbiketa eta higienizazioa ziurtatuko da**: ateetako heldulekuak, esku-delak, etengailuak, komunak, txorrotak, banatzeko manparak, erakusmahai eta gainazalak, lanerako ekipoak, eserlekuak...
- Ahal dela, guneak aldiro aireztatuko dira.
- Girotze sistemen aire eta aireztatze iragazien garbiketa areagotuko da, horrelakorik izanez gero.
- Botatzeko den materialaren (maskarak, eskularruak, etab.) **paperontziak** kokatzeko eremuak definitu behar dira. Paperontzietan itxi daitezkeen **plastikozko poltsak** jarriko dira, eta tapa izango dute; ahal dela, pedalaren bidez irekiko dira.
- Paperontzi hauetako **hondakinen kudeaketa** ohiko hondakinena bezalakoa da.
- Uniformeak erabiliz gero, poltsan sartuko dira, itxi eta ohiko tokira bidaliko dira, han 60-90°C artean garbitu ditzaten. Arropak edo poltsak manipulatuta ondoren, eskuak behar bezala garbitu beharko dira.

Ezarritako Kontingentzia Plana eguneratuta mantendu behar da, osasun agintariek, LSOInek eta Osalanek edo erakunde eskumendunek egindako eguneraketan arabera.

Kontsultatu ondorengo fitxak: eskuen garbiketa, maskaren erabilera egokia eta eskularruen erabilera segurua.

* Maskarak oro har aplikatu beharreko higiene eta osasun arauak edo/eta gomendioak eta prebentziozko jarraikiz erabili beharko dira, edo enpresarentzat, produkzio- edo ekonomia-sektorearentzat berariaz ezarritako neurrien arabera.